

Egoiliar - 1262. zenb.
XXIX urtea - 2022-10-28



TOKIKOM

BARREN

Ilunean argi



Zure diruak balioa dauka

etxegain

IK11

Bizigunea parkean

ETXEBIZITZA GUZTIEK BISTA GARBIAK
DITUZTE ETA TERRAZAK ARRATSALDEKO
EGUZKIARI BEGIRA DAUDE.

SUKALDEAK, HORNITUA DAUDE
ERABAT HORNITUTAKO ARMAIRUAK

IK11k GEHIAGO EMATEN
DIZU, LOGELA GEHIAGO,
ALTUERA HANDIAGO,
BISTA GEHIAGO,
TERRAZA GEHIAGO...
GUTXIAGOREKIN

GE
grupo eibar
inmobiliario

650 442 159

E: comercial@grupoeibar.com

WWW.ETXEGAIN.COM



5. SOLAIRUA
1 LOGELA
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
135.000 eurotik aurrera



5. SOLAIRUA
2 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
160.000 eurotik aurrera



3 LOGELA - 2 BAINU
SUKALDE HORNITUA,
TERRAZA
180.000 eurotik aurrera



GRUPO EIBAR-EN BULEGOA:

San Francisco, 32 - 20870 ELGOIBAR

BUELTAN DA ELGOIBARKO IZARRAREN TONBOLA!

1.000 erregalu baino gehiago...

Aurten bai! Aurreko urteetan
TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik
aurrera**, Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan**.
Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



"Gipuzkoan zehar"
liburuak



Itsulapikoak



"hili" liburua



Kalkulagailu
zientifikoak



Ilerako
produktuak



Giltzatakoko



Arroz eta olo edariak
eta galletak



Kargailuak



Kamisetak



Poltsak



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



BARREN



ELGOIBARKO IZARRA

Eskatzaileon Topagunea

Babeslea: Laguntzaileak:

ELGOIBAR
UDALA
AJUNTAMIENTOMENDIARO
1993

Gipuzkoako Foru Aldundia

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR - 943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren@elgoibarkoizarra.eus
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzurika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegi, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñaki Goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.885 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria

Leire Kerexeta

Ikaslea

Kaleak beltz



*“Gure arbasoak
etxeko trapu zaharrez
baliatzen ziren mozorro
beldurgarriak sortzeko”*

Asteburu honetan ordubete gehiago izango dugun arren lo egiteko, heldu da urteko asteburu ilunena eta horrekin batera, Gau Beltza deritzon gaua ere bai.

Azken urteetan honako jai honek indar handia hartu du Euskadin, eta askok estatubatuarrek ospatzen duten Halloween jaiarekin lotzen badute ere, gure arbasoek XX. mendearen erdialdean ospatzen zuten jaia da Gau Beltza edo Arimen Gaua. Gainera, ikerlariek diotenez, euskararekin funtsean lotutako ospakizuna zen.

Nahiz eta aspalditik ospatzen den jaia izan, ezinbestekoa da onartzea ospakizunak aldaketa handiak izan dituela, beste hainbat eta hainbat ospakizunek bezala. Esaterako, gure arbasoak etxeko trapu zaharrez baliatzen ziren mozorro beldurgarriak sortzeko eta ez zuten sorgin edo eskeleto mozorrorik erosten.

Aitzitik, guk errazena egiten dugu, Interneten “mamu mozorroa” idatzi, web orrialde bat klikatu eta 48 orduan mozorroa etxean, gehienetan ekintza honek dituen ondorioak kontuan izan gabe.

Honen harira, herriko denda txikiak etorri zaizkit burura eta hauek gaur egun bizi duten egoera iluna. Begiak itxi eta kaleak beltz ikusteak izugarriko beldurra ematen dit; hau da, kalean zehar paseo bat eman, ingurura begiratu eta eskaparteetan inongo argi izpirik ez ikusteak.

Argi dago, Internet delako munstro handiari irabaztea ezinezkoa dela eta gure ohiturak baliabide teknologikoen ondorioz erabat aldatu direla, oso eroso baite etxeko sofatik munduan existitzen den edozein produktu erosteko aukera izatea.

Baina denok itxiko bagenituzke begiak eta kaleak beltz eta arima gabe irudikatu, agian web orrietako saskitxoaren gainean klik egiterako orduan gogoeta egingo genuke. Bestela, horrela jarraituz gero, gure herrietako kaleak gau eta egun izango dira beltz urteko egun guztietan.

BARRENeK ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

Oharra

Datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko eta erredakzioa itxita egongo du. Hurrengo alea azaroaren 11n jasoko duzue.

BARREN

'Esazu hitz bat... herri-dantza!' ekimenerako entseguak

Kalegoen plaza jendez beteta eta dantzan ekingo diogu Euskaraldia ariketaren hirugarren edizioari. Mingaina ez ezik, gorpuzta ere dantzatuko dugu egun horretan. Ariketari bezperan emango zaio hasiera, baina Elgoibarren larunbatean ekingo dugu hasiera jaia eguerdiko 13:30ean hasita.

Elgoibarko Euskaraldia Taldeak, Biraka dantza elkarteak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak dihardugu antolakuntza lanetan, eta plazara animatu nahi zaituztegu herritarrak. Ederra izango da!

Birakakoek sortu eta prestatu dute dantza, eta musikaren ardura Musika Eskolakoek izango dute. 300dik gora lagun jarri nahi ditugu dantzan, eta, horretarako, zortzi musikari eta kantari izango ditugu oholtza gainean.

Esazu hitz bat... herri-dantzan! ekimenean dantza egin nahi duzuenok, Birakakoek prestatu dituzten entseguetara azaldu behar duzue.

Entsegu egunak eta ordutegia: azaroak 8 - 10 - 15 - 17 / 19:45 - 20:15. Tokia: Olaizaga Kiroldegia.

Animatu eta etorri entsaioetara!

Elgoibarko Euskaraldia Taldea

BARRENeKo harpidedunentzako oharra

Buzoiko B pegatina falta bazaizu edo hondatuta baduzu, BARRENeN bulegora etorri eta berria emango dizugu.

Banaketa sistema errazteko behar-beharrezkoa dugu zuen buzoiak pegatinarekin markatzea.

Mesedez, ez ezazue pegatina kendu buzoitik. Gure banatzaileek eskertuko dute.



Betirako gure bihotzetan

EUSKARALDIA

HITZEZ EKITEKO GARAIA

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

INUN

sormena eta euskal kontzientzia

hitzaldi musikatua

Mikel Inuntziaga

Inun (Zornotza, 1983)

azaroak 4, ostirala

19:00

kultur etxeke sotoan



Hitzaldi musikatua euskara ikasleentzat eta TERTULIAK programako kideentzat prestatu dugu bereziki. Izan ere, ekimen honekin, Elgoibarko hainbeste jenderi euskara ikasteko egin duen ahalegina eskertu nahi diogu. Hala ere, bestelako jendearentzat ere atak zabalik egongo dira.



Elgoibarko Euskaraldia Taldea



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus



943 744 112



688 634 044



Berriz margotu dute Iñigez Karkizao kalerako lurrazpiko pasabidea:

"Ez dago eskubiderik. Orain dela gutxi garbitu zituzten Toletxe kaletik Iñigez Karkizao kalerako lurrazpiko pasabideko hormak, eta berriz ere margotu dituzte. Jendeak ez du ezer ere errespetatzen".



Idea bikaina izan da jolasak kalera ateratzea:

"Oso gustura ibili gara Jolasen Astean. Eguraldiak lagundu du, eta umeak oso pozik ibili dira, kalean jolasean. Gainera, eragile desberdinekin antolatuta egon denez mota desberdinetako jolasak egin dituzte eta oso aberasgarria izan da. Txalo bat antolatzaileei. Segi horrela!".



Kalamua Guraso Elkarteak eskerrak eman dizkie Herri Eskolako jaiari parte hartu zuten guztiei:

"Larunbatean Herri Eskolako jaiari ospatu genuen, eskola publikoa aldarrikatuz eta gure aniztasunaren aberastasunaz harro. Hamaika kolore, hamaika kultura, hamaika pentsalmode, baina denok bat gure seme-alaben etorkizuna bermatu nahian, euskaraz eta jai-giro ederrean. Eskerrik asko boluntario guztiei, eskerrik asko gerturatu ginen familia guztiei eta eskerrik asko eskolako irakasle eta zuzendaritzari bihotzez egindako lanagatik! Energia zoragarria sortu genuen denok batera; jarrai dezagun bide beretik".



Gazteen Eguna antolatu dute azaroaren 19rako, 'Bagaoz!' lemapean



Bi urteko etenaldiaren ostean, gazteentzako Eguna antolatu du Elgoibarko Udalak. Azaroaren 19an izango da, eta egun osoko egitaraua prestatu dute. Egun horretan Karakateko igoera ere jokatuko da Morkaikok antolatuta, eta ekintza horrekin hasiko dute eguna gazteek ere, 10:30ean. Horren ostean, errifaren zozketa egingo dute, eta 13:00etan txupinazoa botako dute Maalan. Sigmako aparkalekuan bazkalduko dute, eta bazkalostean sorpresaren bat egongo dela ere iragarri dute. 19:00etan Mauxitxa txarangaren kalejira egongo da, eta gauean erromeria Fan&Go taldearekin.

Bazkarian 16 urtetik gorakoek hartu dezakete parte. Tiketak 15 euroan jarri dituzte salgai, eta azaroaren 4rako eman behar da izena. Izena emateko Instagrameko *@gaztienegunak* kontura idatzi behar da kuadrillaren izena eta partaide kopurua zehaztuz.

Meza bereziak izango dira Santu Guztien Egunaren harira

Azaroaren 1ean Santu Guztien Eguna dela-eta, meza bereziak izango dira San Bartolome parrokian. Hilaren 31n 19:00etan egingo dute meza. Azaroaren 1ean meza egongo da 11:00etan eta errosarioa, 18:00etan. Animen Egunean, hau da, azaroaren 2an, 19:00etan izango da meza.

Arregitorre eta Erretsundi arteko pista arrosan argiak jarri dituzte



Arregitorre eta Erretsundi kaleak batzen dituen pista arrosako argiteria martxan da jada. Uztailean ekin zieten argiteria ezartzeko instalakuntza lanei, eta porlanezko pistan zein tunelean jarri dituzte argiak. Inbertsioa 14.934,80 eurokoa izan da eta lanak Electricidad Cuadra S.L. enpresak egin ditu. Elgoibarko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatu dute obra.

Odol emaleak omenduko dituzte azaroaren 5ean

Azaroaren 5ean omenaldia egingo diete Elgoibarko odol emaleei, 12:00etan, Jubilatuen Biltokian.

25 aldiz eman dutenek zilarrezko intsignia jasoko dute: Maialen Astigarraga Garate, Elena Etxeberria Aizpitarte, Carlos Fernandez Martinez, Unai Muñoz Olazabal, Miren Julite Perez David, Alberto Rodriguez Martinez, Amagoia Zubizarreta Gurrutxaga.

40 eta 50 aldiz eman dutenei, berriz, urrezko intsignia emango diete. Yolanda Iglesias Prietok eman du odola 40 aldiz, eta hauek dira 50 aldiz eman dutenak: Josu Leiaristi Uranga, Jaime Martinez Gomez. Alfonso Migales Ordoñez, Francisco Javier Ribao Cid eta Josu Zialtzeta Aduriz. Azkenik, 75 aldiz odola ematen dutenei Emaila Bikaina titulua ematen diete, eta atal horretan dago Joaquin Rosario Lujan.

Ordubete lehenago itzaliko dituzte Eguberrietako argiak energia aurrezteko

A benduaren 8tik urtarrilaren 6ra piztuko dituzte Eguberrietako argiak, baina aurreten argiak ordubete lehenago itzaltzea erabaki du Elgoibarko Udalak, energia aurrezteko. Hortaz, 18:00etatik 22:00etara piztuko dituzte (Iaz, 23:00etan itzaltzen zituzten). Neurri horrekin %20 aurreztuko dute energiaren kontsumoan. Guztira 154 argi egitura inguru jarriko dituzte hogeitun gutxi gutxi banatuta. Berrikuntzak izango dira auzoetan, eta Altzolan, Sigman, San Pedron, Toletxen, San Roken, Urazandin, Trenbide kalean, Basarten, Kurutzealegin edota Erretxindin argi gehiago jarriko dituzte. Kale horietan argi-bolak, zuhaitzak edota 'Zorionak' hitza irudikatuko dituzte gabon argiek. Era berean, argi motak ere hobetuko dituzte mugimendua sartuz, elur-



maluten erorketaren efektuak, ur-efektuaren mugimenduak eta distiren mugimendu leunak irudikatuz.

Argiteria guztia "jasangarria eta kontsumo baxukoa" dela azpimarratu dute Udaletik, eta luminaria guztien indarra batuta, 10.886 voltioko indar-elektrikoa dute.

Azaroaren 4an jarriko dituzte salgai Bizi-Bizixa kanpainako bonoak



Udalak 25.000 euro inbertituko ditu udazkeneko Bizi-Bizixa bono kanpainan, eta guztira 3.300 merkataritza-bonu aterako dituzte. Herritarrek %25eko deskontua izango dute egindako erosketetan, eta gutxieneko erosketa 5 eurokoa izan beharkoa da, eta 60koa gehienez. Bonoak azaroaren 4an jarriko dituzte salgai 44 saltokitan, eta azaroaren 30era arte trukatu ahal izango dira, betiere dendak egun horretara arte bonuak baditu eta merkataritza-establezimenduetan erabili ahal badira.

Adinekoen egoitzetan aldi baterako egonaldiak eskatzeko epea zabalik dago

Azaroan zein Gabonetako oporraldian adinekoen egoitzetan egonaldiak egiteko eskaera-epea zabalik dagoela jakinarazi dute Ongizate Saitetik. Egonaldiak hamabostaldi naturalean egingo dira, eta oro har, Donostiako Txara 2 egoitzan izango dira egonaldiak. Plaza kopuru mugatua egongo da.

Data zehatzei buruzko informazio gehiago eskuratzeko edo eskaerak egiteko Gizarte Ongizate sailera jo behar da, eta horretarako, aurrez hitzordua eskatu behar da, Herritarren Arreta Zerbitzuan edo 943 741 050 telefonora deituta.

Azaroaren 10era arte dago Errigorako saskiak eskatzeko epea

Errigoraren saskiak eskatzeko epea azaroaren 10ean amaituko da. Hiru saski daude aukeran: 55 eurokoa, 65 eurokoa eta 75 eurokoa. Saskiekin lortzen den dirua Nafarroa hegoaldeko eta erdialdeko euskalgintzari bultzada ekonomikoa emateko baliatuko dute. Eskaerak egiteko: errigora.eus

Elssie Xalbador ipuin kontalariaren saioa eta Ibai Fresnedoren hitzaldia antolatu dituzte Mendaron

Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako eguna da azaroaren 25a eta horren harira programa oso bat antolatu du Mendaroko Udaleko Berdintasun Sailak herriko zenbait eragilerekin batera. Momentuan, aurreneko hiru ekintzen berri zabaldu dute. Batetik, azaroaren 5erako ipuin kontaketa saioa iragarri dute, Elssie Xalbadorren eskutik. Udaletxeko pleno aretoan izango da ipuin kontaketa, 18:00etan hasita. Bestetik, azaroaren 12an, te eta henna tailerra jarriko dute Mendaron herrian bizi diren emakume sahararren errealitatea ezagutzera emateko. Herriko Enparantzan izango da, 13:00ak aldera. Azkenik, azaroaren 23rako, Arno Guraso Elkarteak proposatuta, Hiruki Larroxa elkarteko Ibai Fresnedo lotu dute, hitzaldia emateko. Jendarte eraldaketarako pentsamendu kritikoa sustatzea bilatzen duen kooperatiba da Hiruki Larroxa. Horretarako, egungo jendarte eredian ematen diren botere harreman asimetrietan eta zapalkuntza sistemetan fokua jartzen dute, harreman parekideak sustatzeko proiektu integralak garatuz. Ordua eta lekua aurrerago zehazteko laga dute.



Adinekoentzako Mendaroko hiru etxebizitzak abenduan jarriko dituzte erabilgarri



Urte amaierarako erabilgarri izan nahi dituzten Udalaren hiru etxebizitzak Mendaroko Eguneko Zentroko eraikinean daude. Urteak dira eraiki zituztela, baina itxita egon dira orain arte. Orain, hainbat konponketa egiten ari dira haietan, besteak beste zeuden hezetasan arazoei irtenbide bat emateko eta energia elektrikoaren kontagailuak eta beste egoki banatzeko. Tutoretzapeko etxebizitza horien helburu nagusia adinekoek ohiko ingurunean ahalik eta

denbora gehienez eta baldintzarik egokienetan jarraitzeko erraztasunak eskaintzea dela zehaztu dute Udaletik, beti ere "autonomia galera prebenitzeko edota arintzeko beharrezkoak dituzten laguntza zehatzak bermatuta". Era berean, pertsona horiei komunitatean bizitzeko aukera ere eman nahi diete. Hiru etxebizitza sozialen erabilera eskualde mailakoa izango da, Elgoibar, Deba eta Mutrikuko erabiltzaileekin partekatuta.

3,27 milioi euro erabiliko ditu Eusko Jaurlaritzak Sigma auzoa oneratzeko

Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza Sailak 93 milioi euro erabiliko ditu hiri-berroneratzearen programarako. Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako 21 udalerritan aplikatuko dute programa hori, guztira hamalau auzotan, eta horietako bat izango da Elgoibarko Sigma auzoa. Energia berriztagarriak txertatuko dituzte, irisgarritasun-ekintzak egingo dituzte — etxebizitza baterako kanpo-igogailua eta beste baterako barne-igogailua— eta balkoiak eraikiko dituzte etxebizitzetan. Horrez gain, inguruneari bultzada emateko helburuarekin, argiteria berritu, parkeak birgaitu edo trafikoa baretzeko guneak sortuko dituzte. Lurralde Plangintzak 3,27 milioi euroko aurrekontua du aipaturiko lanak gauzatzeko, eta orotara Sigmako 72 etxetan hobekuntzak egitea aurreikusten dute.



Era berean, Sigmako auzoa berrurbanizatzeko lanak egingo ditu Udalak ere, 2015eko Irisgarritasunaren Plan Estrategikoan oinarrituta. Lanok udazken honetan hasiko dituztela jakinarazi zuten joan den uztailen.

'ElikaKlik' egitasmoa sortu dute, elikagaiak ez xahutzeko eta Whatsapp bidezko salmenta sustatzeko

Elgoibarko Udalak, Elgoibarklik plataformaren bidez, eta Dendarrean elkartearekin lankidetzan, Whatsapp kanala sortu du elikagaiak online saltzeko, eta horrez gain, elikagaiak alferriki ez galtzeko. Hil honetan jarri dute abian egitasmoa, probatzeko. Tokiko hamar enpresak bat egin dute (zortzi elikadura-establezimendu eta tokiko bi ekoizle): Armueta, Basueta Baserria, Doña

Mercedes, Eizagirre, Ibarrenea, La Bermeana arrandegia, Patxi Harategia, Surya belar denda, Txilarre eko denda eta Zeleta Baserria. Proiektua indartzeko eta parte hartzen duten saltokietan erosketak sustatzeko, 100 euroko erosketa-bonu bat zozketatuko dute. Azaroaren 10era arte hartu ahal izango da parte zozketan, eta hilaren 11n egingo dute zozketa. Informazio guztia www.elgoibarklik.eus plataforman.

Ateak irekitzeko eguna ospatu zuten zapatuan Herri Eskolan



Joan zen zapatuan Herri Eskolako atea ireki zuten, eta herritarrek ikastetxea bisitatzeko aukera izan zuten. Goizean goizetik lanean jardun ziren ikastetxeko irakasle eta gurasoak, eta giro onean joan zen eguna. Eskolako geletan tailerrak egin zituzten: maskarak eta biserak egiteko aukera izan zen, ilea edota aurpegia margotu eta henna tatuajeak egiteko aukera ere izan zuten. Patioan, bestalde, herri kirol saioa egin zuten: sokatira, txingak, lokotx bilketa eta zaku lasterketa, besteak beste. Paella janarekin amaitu zuten eguna.

Garai bateko usadioan, Gaba Beltza ospatuko dute gaur Elgoibarren, bai eta Mendaron ere, astelehenean

Gaba Beltza ospatuko dute Elgoibarren eta Mendaron, Euskal Herriko txoko askotan 1950eko hamarkada aldera arte oso zabalduta egon zen usadioaren esentzia berreskuratu asmoz. Urriaren 31n, haur eta gazteek bide bazterretan arbi eta kalabaza hustuetan kandelak ezkutatu ohi zituzten garai batean, eta etxez etxeko eske errondak ere egiten zituzten. Horren harira, eta Elgoibarko Hezkuntza Mahaiak antolatuta, ibilaldi beltza egingo dute gaur Elgoibarren, Kalegoen plazatik Maalaraino, 19:30ean abiatuta. Tarte horretan kaleko argiak itzalita egongo dira eta erakuslehoak Egur arte tailerreko ikasleek egindako artelanekin egongo dira apainduta. Bidean, herriko zenbait eragilek, hainbat ekintza egingo dituzte. Parte hartuko dutenei etxeko trapu zaharrak jantzita joateko eskatu diete antolatzaileek, nahi izanez gero lastozko kapela jantzita. Hala ere, eta etxean mozorrotzerik ez dutenentzat, atontze tailerra ere jarriko dute Kalegoen plazan, 18:00etatik aurrera. Aurpegiak margotzeko edota buruak estaltzeko izara zatiak prestatzeko aukera ere izango da han. Maalan bukatuko dute eguna, ekitaldi batekin.

Azaroaren 2rako, berriz, *Kanela*, *kalabazak eta gatxak* ipuinaren proiektzioa eta Pixarrek ekoiztutako *Coco* film ezagunaren emanaldia iragarri dituzte (Herriko Antzokian, 17:00etatik aurrera). Atxutxiamaikak, Udalaren laguntzarekin sortu eta Azpeitiko Kulturaz Kultur kooperatibak digitalizatutako ipuina da *Kanela*, *kalabazak eta gatxak*, eta heriotza lantzeko erabili dute herriko ikastetxeetan.

Mendaron, astelehenean

Urriaren 31n ospatuko dute Mendaron Gau Beltza, Euskal Herrian ohitura izan den bezala. Arno Guraso Elkarteak Ixabel



Agirresarobe ipuin kontalariaren saioa antolatu du egun horretarako. Trinitaten izango da saioa, 19:00etan. Ordu horretarako, Trinitate bueltako kaleko argiak itzaliko ditu Udalak, eta guraso elkarteok ibilbide ilun halako bat atonduko dute anbulatorio paretik Trinitatera arte. Ipuin kontalariaren saioa amaitutakoan, beldurrak paperetan idatzi eta lapiko batera botako dituzte, uxa daitezen denak. Arnotik dei egin diete familiei etxeko trapu zaharrekin mozorrotzera, merkataritza zentroek hauspotutako Halloweeneko mozorroen, maskaren eta plastikozko kalabazen industria handiaren kontra eginda.



ANBULATORIOA EGUNERO ETA 24 ORDUZ ZABALTZEKO BORROKAN

  Ainhoa Andonegi

24/7 Plataformak mobilizazio eguna izendatu du biharkoa. Elgoibarko Anbulatorioa asteko zazpi egunetan eta 24 orduz zabalik egoteko borrokan ari da plataforma azken bi urteotan, eta bide horretan aurrera egiteko, herritarrek batu nahi dituzte, osasunak "herritar guztiei" eragiten dielako. Mobilizazioaren harira, herriko norbanako eta eragileen atxikimenduak jaso dituzte. Biharko ekitaldia Kalegoen plazan izango da 11:00etatik 14:00etara.

24/7 plataforma osasungintza publiko indartzeko eta Elgoibarko anbulatorioko zerbitzua lehengora bueltatzeko borrokan ari da. Anbulatorioa zabalik nahi dute, asteko zazpi egunetan eta eguneko 24 orduetan, osasuna ez delako "txantxetako kontua". Plataformako kideek salatu dute Elgoibarko anbulatorioak "murrizketa ugariak eta jarraiak" izan dituela azken urteetan, eta beraien ustez Covid-19aren pandemia aitzaki bat besterik ez da izan, Osasun Sailak aurrez planifikatuta zeukan plangintza betetzeko.

2010. urtera arte Elgoibarko anbulatorioa irekita egoten zen, astelehenetik domekara, eguneko 24 orduetan. Urte hartan gaueko larrialdi zerbitzua kendu zuten, eta anbulatorioa gauerdian ixten hasi ziren, 00:00etan. Erabaki hark herritarren gaitzespena ekarri zuen, eta larrialdietako zerbitzuko langileek itxialdia egin zuten protesta gisa. Garai hartan Udalean ordezkariak zeukan Eusko Alkartasuna alderdi politikoak sinadura bilketa egin zuen larrialdi zerbitzua berreskuratzearen alde, eta 2.000 sinadura baino gehiago bildu zituen. "Baina sinadura horiek ez zuten ezertarako balio izan", esan dute plataformatik, egoerak okerrera egin baitzuen, anbulatorioa 20:00etan ixtea erabaki zutenean. Eta orain dela bi urte, Covid19-aren

pandemia iritsi zenean, anbulatorioa ixteko ordutegia 17:00etan ezarri zuten, eta lanegunetan eta asteburuetan anbulatorioa ixtea erabaki zuten, larrialdi zerbitzu guztia kenduta. "Osasun Sailak adierazi zuen pandemiak bultzatuta hartutako moldaketa izan zela, eta osasun egoerak hobera egin ahala, pandemia aurreko ordutegia berreskuratuko zutela, baina gezurra zen", esan dute haserre plataformatik, anbulatorioko zerbitzuak egoera berean jarraitzen duelako.

MOBILIZAZIOAK

Egoerak bere horretan jarraitzen duela ikusita, Elgoibarko pentsiodunen mugimendua eta herriko beste hainbat eragile 24/7 plataformaren bueltan biltzen hasi ziren, Elgoibarko anbulatorioan larrialdi zerbitzu iraunkorra berreskuratuzeko, 2010era arte egon zen bezala. Mobilizazioei lotuta, 4.000 sinadura biltzeko helburua zeukan kanpaina egin zuten iaz, eta urte amaierarako 5.501 sinadura lortu zituzten: "5.501 bizilagunek anbulatorioko larrialdi zerbitzu iraunkorra berreskuratzea eskatu zuten; 18 urtetik gorako herritarren %60 baino gehiagok. Zalantzarik gabe, udalerrri honetan egin den mobilizazio handienetakoa izan da". Aurtengo martxoan eraman zituzten sinadura horiek Eusko Legebiltzarrera, eta zazpi hilabete geroago, erantzunik gabe jarraitzen dutela salatu dute: "EAJk eta PSOEk blokeatuta daukate gure agerraldi eskaera, eta guk zain jarraitzen dugun bitartean, Urkullu lehendakariak Elgoibarren anbulatorio berria eraikiko duela iragarri du". Plataformatik haserre erantzun dute: "Badirudi ez dutela ulertzen gure mezua; elgoibartarrok anbulatorioa zabalik nahi dugu". Mendaroko eta Eibarko ospitalak gertu daudela esan du Osasun Sailak, baina plataformako kideek diote adineko jendeak zailtsunak izaten dituela desplazatzeko, eta larrialdi zerbitzua herrian bertan eduki behar dugula aldarrikatzen dute, Osasuna "herritar guztion" kontua delako.

Guzti hau kontuan hartuta, mobilizazio eguna antolatu dute biharko. Maalako parkean hasiko da ekitaldia 12:30ean, eta kalejiran joango dira Kalegoen plazara. Han, umeentzako ekintzak, bertsolariak eta musikariak izango dira, eta 13:30ean kontzentrazioa egingo dute. "Ez gaituzte isilduko, gure osasunaren alde borrokan segituko dugu".

BIHARKO EGITARAUA

- **11:00** Musika, eta umeentzako ekintzak. Kalegoen plazan.
- **12:00** Aldarrikapen-kalejira, Haritz Dantza taldearekin, Kalegoen plazatik hasita.
- **13:00** Bertsoak eta aurkezpena, Anjel Ugartebururen eskutik.
- **Jarraian**, musika: Oier Gurrutxaga eta Gabi eta Alfonsorekin.
- **Ondoren**, manifestuaren irakurketa.

NORBANAKOEZ GAIN, ONDORENGO ERAKUNDEEK EMAN DUTE ATXIKIMENDUA:

Enpresak komiteak

- Elgoibarko Udaleko langile batzarra
- Ferreteria Unceta
- Alkorta
- Rodisa
- Egondo
- San Lazaro Egoitzako langileak
- Teknikalde
- Spool

Alderdi politikoak

- EH Bildu
- Podemos

Sindikatuak

- ELA
- LAB
- STEILAS

Elkarteak eta mugimenduak

- Haritz Dantza Taldea
- AEK euskaltegiko langileak
- Duintasuna
- Narrutsik
- Elgoibarko Gazte Asanblada
- Ernai
- Zarta
- Taupada
- Urazandiko auzo-elkartea
- Merkatu Plazako Fruta dendak
- Aizu
- Tawasol
- Txankakua Merkatari Elkartea

Zer iruditzen zaizu anbulatorioak gaur egun ematen duen zerbitzua?

ENCARNI MIGALES



Zerbitzua motza dela iruditzen zait. Ez dut esaten gau oso zabalik egon beharko litzatekeenik, baina gutxienez 00:00ak arte, bai. Uste dut nahikoa

ordaintzen dugula zerbitzu hori jasotzeko. 17:00etan ixtea zerbitzu motzegia da. Gainera, espezialitate batzuk anbulatoriotik kentzen ari dira, eta osasungintza pribatura joatera derrigortzen ari zaizkigu. Gero eta eskasago dago osasungintza publikoa.

DEMETRIO TORRES



17:00etan ixtea anbulatorioa ez dut ondo ikusten. Lehen zabalik egoten zen gau eta egun, eta baita asteburuetan ere, eta orain oso goiz ixten dute. Larrialdietara

Mendarora joateko esaten digute, baina ni bezalako jendearentzat hori arazoa da. Etxean ez badago autorik zaila da Mendarora joatea. Deitu dezakezu, baina ez dira berehala etortzen. Nik hartuko dut parte biharko antolatu dituzten mobilizazioetan.

MARIAN EXPOSITO



Dagoen zerbitzua ez dago gaizki, baina ordutegi zabalagoa behar du anbulatorioak. Nik gidatzen dut, baina zerbait pasatuz gero eta gidatzeko moduan ez

banengo, ezingo nintzateke Mendarora joan. Bestela erizainak, medikuak eta langile guztiak jatorrak dira, ondo hartzen gaituzte, baina topera daude. Ahal duten guztia egiten dute, baina txanda eman orduko denbora gehiegi pasatzen da. Zerbitzua handitu beharra dago.

PEDRO IPARRAGIRRE



Goizegi ixten dutela iruditzen zait, eta zerbitzu ordu gutxi ematen dutela. Nik neuk ez dut behar berezirik eduki momentuz, eta nire kabuz joan izan

naiz bi aldiz larrialdietara Mendarora autoa daukadalako, baina edozeinek ezin du hori egin. Gauzez ez dakit zabalik egon beharko litzatekeen anbulatorioa, ez dakit zer erantzun, baina asteburuetan baietz iruditzen zait, zabaldu beharko luketela.

JAVIER ABAD



Egunez ondo dago, baina 17:00etan ixtea goizegi dela iruditzen zait. Larrialdi baten aurrean edonork ez dauka Mendarora edo Eibarrera joateko aukera,

batez ere adinekoek. Gauzez edo asteburuetan desplazatzea ez da erraza. Garraio publikoa ez da maiztasun askorekin egoten asteburuetan, eta gauzez ez dago, beraz, autoa beharrezkoa da. Osasuna gainera ez da kapritxoa, denok daukagun beharra da.

JAEL LIZUNDIA



Zerbitzu publikoa izanda, ahalik eta zerbitzu zabalena eman beharko litzateke, eta Elgoibarren 11.000-12.000 lagun inguru bizita, iruditzen zait anbulatorioak

zerbitzu zabalagoa eman beharko lukeela. Ulertzen dut baita ere Mendaroko Ospitalea gertu daukagula eta erraza dela hemengo zerbitzua murrizteko erabakia hartzea. Gauden egoeran egonda, zaila ikusten dut lehengo zerbitzua berreskuratzea.



“Ospea Magallaesek du, baina munduaren bira osatzearen meritua Elkanorena da”

JAVIER ELORZA

Geografian eta Historian
lizentziatua. Paleografoa. Erdi
Aroko historian espezializatua

✍️ Ainara Argoitia / 📷 Asier Orbea

'Elkano eta euskal marinela munduari lehen biran' izeneko hitzaldia eman zuen Javier Elorza Maiztegi historialariak (Soraluze, 1953) eguaztenean, Elgoibarren. Elgoibarko Izarrak eta Ilumberri Achademiak antolatu zuten, Elgoibarko Udalaren laguntzarekin, eta duela 500 urteko abentura heroiko eta gatazkatsu haren inguruko jakingarriak eman zituen Elorzak. Mediterraneo eta Atlantikoko merkataritzan aberastutako Domingo Sebastian Elkano itsasgizonaren eta Katalina Porturen bederatzi seme-alabetan laugarrena izan zen Juan Sebastian, familia negozioari segida eman ziotenetako bat, eta haren ibilerez eta Hernando Magallaesek zuzendutako espedizio hartan parte hartu zuten marinela euskaldunei buruz aritu ginen Elorzarekin, hitzaldia aurretik.

Lehen mundu biraren bosgarren mendeurrena bete da. Baina badira historialari batzuk esaten dutenak 1519an abiatu eta 1522an Juan Sebastian Elkanok osatutako munduaren bira ez zela izan historian egindako lehenengoa. Zer diozu?

Gauza asko esaten dira, baina egiaztatu egin behar dira, eta kontu horrek ez dauka oinarrik.

Bide komertzial berriak zabaltzea, espezieekin etekin ekonomiko handiak lortu nahia, botere anbizioa... zein izan zen espedizio haren benetako arrazoia? Eta zerk eman zuen bide horretarako?

Portugaldarrekin izandako istiluek eman zuten bidea. Gaztela-leondarrek bazekiten portugaldarrek hemen ez zegoen jenero asko ekartzen zutela, eta, jakina, muturra sartu nahi izan zuten negozioa ikusten zuten lekuan. Aurrez, 1491n, Tordesillaseko Ituna sinatua zuten Gaztelako eta Aragoiko errege-erreginen ordezkariak eta Portugalgo erregearenek. Itunak Ozeano Atlantikoaren eta Mundu Berriaren (Amerika) nabigazio eta konkista eremuen banaketa ezarri zuen, Cabo Verdeko uharteetatik hainbat itsas legoara dagoen lerro baten bidez, eta lehen mundu biraren espedizioan lanean hasi zirenean, segituan sortu zen zeresana. Moluketara joateko beren lurretan sartzen ari zirela leporatu zieten portugaldarrek gaztela-leondarrei, eta haiek, ezetz, beren juridiskzioko lurak zirela. Espedizioaren arrazoia beraz, argi eta garbi, ekonomikoa izan zen. Ez ahaztu, gainera, 250 lagunekin ez dagoela ezer konkistatzerik. Egia da, hori bai, portugaldarrei ez ziela graziaz egingo eurekin ibilitako bi portugaldar, Hernando Magallaes nabigatzailea eta Rui Faleiro astronomoa, Espainiaren zerbitzura ikusteak eta haien ezagutza eta eskarmentua beste potentzia nagusiaren esku jartzeak.

Zerk eraman zuen Magallaes gaztela-leondarren aldera jartzera?

Europako portu garrantzitsuena izan zen Sevillakoa, eta Magallaes nabigatzailea izanda, sarri ibiliko zen han. Ezkondu ere sevillar batekin ezkondu zen, Beatriz Barbosarekin, Sevillako nobleziako alaba batekin. Beatrizen aita ere portugaldarra zen izatez, baina Errege Katolikoen alde ibilia zen Granadan, eta saritzat Sevillako Errege Alkazar jauregi-multzoko harresituko nagusi izendatu zuten. 1518ko lehen hilabeteetarako



Javier Elorzak Jose Antonio Azpiazurekin batera Elkanoren ibileren harira argitaratutako liburua.

oso aurreratuak zituzten Magallaesek eta Rui Faleirot negoziazioak Gaztelako erregearekin eta martxorako emanak zituen erregeak espedizioa antolatzeke behar ziren baimen guztiak. Adostu zuten bost itsasontzi prestatuko zituztela [haietako hiru Euskal Herrian egindakoak ziren].

Nola batu zen Elcano espedizio hartara?

Pentsatzekoa da espedizio hartan ardura izan zuen norbaitek gomendatuta sartu zela, eta Elkanori mesede egin ahal izan zioten pertsona guztien artean bi euskal herritarrek bakarrik jokatu zuten garrantzizko papera espedizio haren prestaketan: Juan Elorriaga itsasontzi maisuak, fenomeno bera, eta Juan Lopez Errekaldek, Sevillako Kontratazio Etxeko kontularia zen azkoitiarrak. Uste dugu Elorriagaren eskutik sartu zela Elcano espedizioan, baina ukazina da biek izan zuela harremana.

"Uste dugu Juan de Elorriaga itsasontzi maisuaren eskutik sartu zela Juan Sebastian Elcano Magallaes espedizio hartan"

Nor zen Elorriaga. Zer beste dakigu hari buruz?

Eskarmentu handiko itsasontzi maisua zen eta garbi gelditu zen hori Pedrarias Davilaren agindupean 1514an Erdialdeko Amerikako Darien kostaldera egindako espedizioan -Castilla del Oro-. Karabela biribil batean abiatu zen, 62 upel eskasekoan. Itsas armada hartako ontzi txikiena zen berea, bela karratu, zurrun eta norabide bakarrekoak zituen. Sekulako lorpena da ontzi hartan buelta hura ematea, biribila izatean zabalagoa zelako eta zailtzen zuelako nabigatzea. Espedizio hartan hogeiren bat itsasontziko flota abiatu zen urre bila, 1.500 bat pertsona, tartean euskal herritarrek ere bai, baina bi ontzi bakarrik itzuli ziren Sevillara bueltan, haietako bat Elorriagarena; gainerakoak hondoratu egin ziren. Broma izeneko molusku parasitario batek zulatu zituen itsasontzien kroskoak. Zortzi urte geroagorako izugarri aurreratu zen ontzigintza.

Zer eginkizun eman zioten Elkanori?

Itsasontzia hornitzea eta antolatzea zen itsasontzi maisu baten egitekoa, baina espedizioko kideak hautatzea ere agindu zion Magallaesek. Izan ere, Magallaesek zailtasun handiak izan zituen itsas armada hartan sartzeko prest zeuden marinela topatzeko Sevillan. Marinelei eskaini zizkieten soldadak ez ziren txarrak berez, baina espedizio haren norakoak eta helburuak ez ziren erakargarri. Ziurrenik errazagoa zatekeen bide ezagun eta zehatz bat egiteko flota batean errolatzea, baina kasu hartan arriskua handia zen. Ez dugu ahaztu behar espediziorako hartu zituzten bi ontzi kargatuta eta Londresera eta Flandriara abiatzeko gertu zeudela enbargatu zituztenean, baina haietan itsasoratzearen ziren marineletako bakar batek ere ez zuela izena eman espediziorako [Domingo de Apailua ondarrutarrarena zen ontzietako bat, *Santa Maria* izenekoa, espediziorako *Victoria* izenez adskribatu zutena, eta Diego Sanchez de Asua erandioarrarena zen bestea, *Santa Maria* izenekoa hura ere, gerora *San Antonio* izena eman ziotena].

Etxe onekoa zen Juan Sebastian Elkano, aparteko diru arazorik ez zuena. Zer lotzeko batu zela uste duzu espediziora? Zer irabazi zuen munduari itzulia emanda?

Etxe onekoa zen, bai. Getarian 1500. urtean egin zuten zergapekoen eroldaren arabera,

"Magallaesen espedizioko hiru ontzi ziren Euskal Herrian egindakoak: Trinidad, ezaugarri onenetakoa, Magallaesi berari esleitu ziotena, eta Victoria eta San Antonio"

herri guztiko hamaika familiak bakarrik gainditzen zituzten elkanotarrak ondasunetan. Bizi ere karez eta harriz eraikitako dorretxe batean bizi ziren, eta sasoi hartan, etxeak normalean egurrezkoak izaten ziren. Hala ere, dirua izan zitekeen motibazioetako bat. Arrazoi gehiago ere baziren, baina. Batetik, Juan Sebastianek ume-umetatik ezagutu zuen mundu hori, itsasokoa. Bestetik, ausarta zen eta abenturazalea [28 urte zituen munduari itzulia ematera joan zenean]. 1515eko udan, esaterako, tokiko milizietan errolatuta egon zen. Gipuzkoako herri guztietan sortu ziren miliziak erregearen aginduz eta Donostia eta Hondarribia artera bidali zituzten, frantsesek lurraldea inbaditzeko mehatxua zegoelako. Getariatik hamabi gizon joan ziren, eta horietako bat izan zen bera. Birritan egon zen milizietan. Historialari batzuek diote, era berean, 1512an Aljerian, Oranen kontrako espedizioan ere parte hartu zuela beste euskal herritar askoren artean, baina horren froga dokumentalik ez dago. Edozelan ere, munduari buelta ematea abentura erakargarria zen, arriskutsua, baina oso ondo ordaindutakoa. Elkanok, hileko, urrezko zortzi dukat irabazi zituen, urtean 96 dukat beraz, eta hemen, harginek, zapatariek eta abarrek urtean 15 dukat irabazten zituzten. Marinelek ere hiru dukat t'erdi kobratzen zuten hilean; 40, urtean.

Itsasbide zehatzik gabe munduari buelta eman izanagatik eta merkataritza bide berriak zabaldu izanagatik goratu izan da Elkano, baina mundu mailan Magallaesen itzalean dago oraindik. Egindakotik zer dagokio bakoitzari?

Europako historiografian Magallaesentzat izan da loria, bai. Ospea Magallaesek eraman du, espediziorako baimena bere izenean eman zitelako, baina meritua, munduarren bira osatzearen meritua, Elkanorena da. Magallaes,



leku ezagunetik iritsi zen Santa Cruzera, Argentinara, eta handik aurrera besteak bezain galduta ibili zen. Berak esan zuelako iritsi zirela Moluketara? Ez dut uste. Azkenean, Filipinetako Maktan irlan indigenekin izandako borroka batean hil zen Magallaes. Egia da Filipinetaraino iritsi zela, baina behin hara iritsita, bueltako bidea jakinekoa zen. Abentura, gainera, Elkanoren aginduetara amaitu zuten.

Magallaesen espediziorako kontratatutako bost ontzietatik hiru Euskal Herrian egindakoak ziren. Zer sona zeukaten hemengo ontziolek?

Magallaesen espedizioko hiru ontzi ziren hemen egindakoak: Trinidad, ezaugarri onenetakoa, Magallaes berari esleitu ziotena, eta Victoria eta San Antonio. Euskal ontzioletan lau ontzi mota egin zituzten nagusiki: karabelak, pinazak, karrakak eta galeoiak. Euskal ontziolek prestigio handia zuten XV-XVI. mendeetan. Batetik, haritza erabiltzen zutelako materialtzat, eta bestetik, barenga bidezko teknika erabiltzen zutelako alboko oholak lotzeko. [Barenga gilaren gainean perpendikularrean edo ababorretik istriborrera gurutzatuta jartzen den pieza kurbatuari esaten zaio, kuadernak edo ontziaren saihetsak lotzeko]. Bestetan, oholak gorbatoiarekin lotzen ziren goian, baina barenga bidezko teknikari esker askoz ontzi sendoagoak lortzen ziren. Eta era horretan eraikitako ontziak izan ziren Magallaesen espedizioan erabili zituztenetako

hiru. Ontzigintza tipo horretan Deban, Orion, Pasaian eta Zumaian jardun ziren bereziki.

Elkanoren figura bakarrik goratu izan da bazterrotan, baina aipagarria da euskal herritar gehiago ere izan zirela espedizio hartan, tartean hamarren bat gipuzkoar, gehienak barrualdekoak; marinelak, gutxi. Deigarria egiten da.

Hogeita hamabost izan ziren guztira: hamar gipuzkoar, 21 bizkaitar -gehienak bermeoarrak edo bilbotarrak- eta lau nafar. Gipuzkoarren artean, hamarretik sei barrualdekoak ziren. Harrigarria da Gipuzkoako kostaldeko portu tradizionalenetatik inor ez hartu izana espedizio hartarako, ez mutrikuarrik, ez zumaiarrik, ez getariarrik..., nahiz eta udalerrri horietakoek merkataritza harreman handia izan itsasoz penintsulako hegoaldearekin eta eskarmentudun jendea izan. Kontuak kontu, aipagarria da espedizio hartan izan ziren euskaldunen kopurua (errolatutakoen %14). Abentura hura Andaluzian sortu zen eta partaideen %31 ziren andaluziarrak, baina haien ondoren euskal jatorrikoak ziren nagusi, eta ondoren, portugaldarrak eta genoarrak.

Magallaesekin egindako lehen espedizio haren ondotik altarera igo zuten Elkano, eta 1525ean berriro abiatu zen Moluketara. Zeinek eskatuta, zein gradutan, zertara?

Karlos I.a Espainiako erregeak eskatuta.

Magallaesi lehen espedizio hartarako baimena eman zionean, erregeak jaso zuen hamar urtean ez zuela beste espediziorik baimenduko Moluketara, baina 1525ean eman zuen atzera baimena. Magallaesenarekin konparatuta espedizio berriak ia bi aldiz parte-hartzaile gehiago zeuzkan eta zazpi itsasontzi. Bizkaian prestatu zuen espedizio hura Elkanok, Portugaleten bizitzen jarrita. Aurrekontu handia izan zuen armada handi hura osatzeko. 1525eko uztailaren 24an irten zen Coruñatik zazpi itsasontziz osatutako armada handi hura, urrea balio zuten espezieen bila. Ez dugu ahaztu behar aurreko espedizioan espeziez beteta etorri zirela eta izugarritzko irabazi ekonomikoak atera zituztela. Elkanok berak, esaterako, 500.000 inguru marabedie kobratu zituen eta bere soldata gehituta, 600.000; konparazio batera, gaur egungo 600.000 euro dira horiek, baina sasoi hartan, gaur besteko beharrik ez zen garaian. Bigarren espedizio honen buru Jofre Loaysa jarri zuten, eta Elkanok izan zen bigarren agintaria eta gidari nagusia.

Eta espedizio hartara inguruko asko eraman zituen Elkanok, ezta?

Bai. Inguru gertuko jende asko eraman zuen orduan Elkanok bere ontzian, *Sancti Spiritus* izenekoan. Bere laguntzaile leialak kokatu zituen gainera Loaysaren itsasontzi nagusian ere, tartean elgoibartar bat, Martin Iñiguez Karkizano, Karkizano Goikoa oinetxeko jauna, armada horretan ordenari eusteko ardura izango zuena. Elgoibarko handikia zen. Harreman estua izan zuen Elkanok Karkizanorekin, eta horren erakusgarri da Elkanoren gauza asko gorde zituela hark Elgoibarko etxean. Beste Karkizanoar bat ere joan zen espedizio hartan, *Victoria* itsasontzian: Martin Garcia Karkizano marinel gaztea, Karkizano Behekoa. Eta elgoibartar gehiago ere izan ziren. Nolanahi ere, hondamendia izan zen espedizioa. Eskorbutoak jota hil ziren asko, eta ziguerak jota beste batzuk, tartean, uste da, Elkanok bera ere bai [alga mikroskopikoen toxinekin kutsatutako arrainak jateak sortzen zuen intoxikazioa da ziguerak. Abiatu ziren 450 lagunetik 115ek osatu zuten bira, tartean euskal herritar batzuk ere bai]. Erregeak ez zuen irabazirik atera.

Izan al zinen lehen mundu biraren bosgarren mendeurrena ospatzeko Getarian egin zuten ikuskizuna ikusten? Zer irizten diozu horri, eta

"Magallaesen espedizioko hiru ontzi ziren Euskal Herrian egindakoak: Trinidad, ezaugarri onenetakoa, Magallaesi berari esleitu ziotena, eta Victoria eta San Antonio"

mendeurrenaren harira sortu den polemikari?

Ez dut polemika ulertzen. Ez zait iruditzen orain 500 urte egin zirenak gaur egungo pentsamoldearekin epaitu behar direnik. Beste kontu bat da Getarian egiten duten barregarrikeria hori. Antonio Pigafettaren kontuak dira horiek. Pigafetta lombardiarra zen, Aita Santuaren nupzioaren zerbitzari izateko joan zena Bartzelonara, eta han, Magallaes eta Rui Faleiro ezagutu eta izena eman zuena lehen espedizio hartarako. Gaztea zen, baina kultura handikoa garai hartarako, bazekielako idazten. Magallaesen itzala izan zen, eta hark idatzi zituen kontuetatik ateratakoak dira antzezpen xeble horretan egiten direnak. Pigafettak aipatu ere ez du egiten Elkanok bere idatzian. Espedizioko azkeneko *tximinoa* zen, baina bere burua goratzen du esanez berari esker lortu zela munduari bira ematea. Sanlucar de Barramedara iritsi zirenean Frantzia eta Italia aldera egin zuen zuzenean, nahiz eta erregeak esana zuen itzuli ziren guztiakin batu nahi zuela Badajozen. Beste guztiak elkartu ziren erregearekin, baina bera ez, eta hala ere, espedizioaren bertsio ofiziala berea da. Nik irakurrita daukat eta han ezer gutxi dio espedizioaz; landareen eta abarren inguruko detaile teknikoak dira gehiago. Kontatzen du, hori bai, zarpail eginda iritsi zirela Sevillara, argizariak eskuan, eta Santa Mariara joan zirela prozesioan. Pentsaezina da hori, baina. Irailaren 6an iritsi ziren Sanlucar de Barramedara; irailaren 9an iritsi ziren Sevillara, eta hiru egun horietan sekulako omenaldiak egin zituzten. Sevillara iritsi bezperako gaua Coria del Rion egin zuten. Sekulako afaria egin zutela jasota dago. Zuk uste duzu Sevillarara arropak aldatu gabe iritsiko zirela, hiru eguneko omenaldien ostean? Elizara joan zirela eskerrak ematera? Bai, hori baliteke, baina ez dut uste aurrekariak kontuan izanda Getariako antzerkian irudikatzen den gisara izango zenik.

Tokikom Sarietarako izendatu dute 'BARREN'

Tokikomek (Toki Komunikabideek Taldea) azaroan 11n egingo du Tokikom Sarien aurtengo ekitaldia, eta BARREN astekaria izendatuen zerrendan dago. Tokikom Sarietan toki komunikabideen kazetaritza lanak saritzen dituzte, baina aurten Tokikomek hamar urte bete dituzenez, "berezia" izango da ekitaldia: hamar urte hauetan nabarmendu diren tokiko komunikazio proiektuak sarituko dituzte, eta epaimahaia BARREN Komunikazio Proiektua sartu du izendatuen artean, "Elgoibarren erreferentziazkoa izatera iritsi den komunikazio proiektuari eusteagatik, eta bailara mailan saretzeko lehen pausoetan parte hartzeagatik". Gaur-gaurkoz, 28 bazkidek osatzen dute Tokikom, guztira 74 hedabide kudeatzen dituztenak: 32 webgune, 28 aldizkari, 5 telebista eta 9 irrati, eta 240 langilek dihardute taldeko komunikabideetan lanean.

Bikustik taldeak kontzertua emango du gaur, Herriko Antzokian



Jon Gurrutxagak eta Patxi Zabaletak osatutako Bikustik taldeak kontzertua emango du gaur Herriko Antzokian, eta oraindik badago sarrerak erosteko aukera. *Herrikoantzokia.eus* atarian eros daitezke aurrez, eta bestela, Herriko Antzokiko txarteldegian ere salgai egongo dira. Talde eta bakarlari ezagunen abestien bertsoiak kantatuko dituzte, modu akustikoan. 19:00etan hasiko da emanaldia.

Mendaroko Udaleko langileek Euskaraldiarekin bat egin dute



Mendaroko udal-langileek bat egin dute Euskaraldiarekin aurtengo edizioan ere. Hizkuntza ohituretan eragiteko ariketa da Euskaraldia, eta aurten azaroaren 18tik abenduaren 2ra egingo dute, *Hitzez ekiteko garaia* lemapean.

'Iraultza batasuna da' tailerra egingo dute azaroko bi asteburutan

Iraultza Batasuna da tailerra antolatu du Almaur Elkarteak, eta Belen Capape izango da tailerraren gidaria. Bi asteburutan emango dute tailerra: azaroaren 5-6ko saioa Lilan izango da, eta azaroaren 10-11koa, berriz, Urbizixan (Upaigoiti baserrian). Zapatuan egun osoko saioa egingo dute, eta domekan, goizez. Gizon zein emakumezkoentzako tailerrak dira, eta bertan, norberaren barruko jakinduariarekin konektatuko dute, gizon eta emakumeen arteko begirada adiskidetzeko. Izena emateko: *labur.eus/REVOLUCION*

El Drogasek azaroan emango duen kontzerturako sarrera gutxi batzuk geratzen dira

Barricada taldearen 40. urteurreneko bira egiten ari da Enrique Villarreal Armendariz *El Drogas* abeslaria, eta azaroaren 25ean etorriko da Elgoibarko Herriko Antzokira. Sarrerak agortzear daude dagoeneko, baina oraindik badaude bakarren batzuk salgai. 10 euroan daude salgai *herrikoantzokia.eus* webgunean.



Euskaraldiko furgoneta azaroaren 10ean iritsiko da Elgoibarrera

Herriz herri dabil Euskaraldiaren gune ibiltaria, eta azaroaren 10ean Elgoibarrera iritsiko da. Furgonetaren helburua bikoitza da: batetik, Euskaraldia badatorrela jakinarazi nahi dute bertatik bertara, ariketaren inguruko informazioa eman eta izen-emateak bilduta. Eta, bestetik, Euskaraldia modu sakon eta erosoan egiteko prestakuntzak duen garrantzia zabaldu nahi dute, aholkuak eta bestelako pilulak emanez. Kalebarren plazan jarriko dute furgoneta, 17:00etatik aurrera.

Euskaraldia ariketa azaroaren 18an hasiko da, eta horren harira, azaroaren 19an hasiera ekitaldia egingo dute Elgoibarren. Kalegoen plazan izango da 13:30ean, eta dantza egongo da aurkezpenaren erdigunean. Elgoibarko Euskaraldia Taldeak, Biraka dantza elkarteak eta Inazio Bereziartua Musika Eskolak dihardute antolakuntza lanetan, eta herritarrak animatu nahi dituzte ekitaldian parte hartzera.



Birakakoez sortu eta prestatu dute dantza, baina nahi duten guztiek izango dute dantza egiteko aukera. Horretarako, baina, dantza ikasteko prestatu dituzten entseguetara joan behar da. Azaroaren 8an, 10ean, 15ean eta 17an izango dira entseguak, 19:45etik 20:15era, kiroldegian.

Euskaraldiari lotuta, bestalde, azaroaren 2tik 17ra informazio mahaia jarriko dute Aita Agirre kulturguneko sarreran, izena eman, txapak banatu eta Euskaraldiko materiala erosi ahal izateko. 17:30etik 19:30era egongo dira, astelehenetik egunera.

'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi' antzerkia Elgoibarren eta Mendaron



Kamikaz kolektiboak sortutako antzezlan da *Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi*. Hiru emakume, kanpai hotsekin batera, puntual elkartzen dira merienda mahai baten inguruan. Tisana, pasta, azukre eta pasteltxoak betetzen dituzte gorputzak, beraien egunerokotasunaz hitz egiten duten bitartean. Ba ote dakite, beraien bizitza beste norbaitek kontatua izan dela? Nork mugitzen ditu emakume hauen kortseen hariak?. Galdera horiek eta gehiago erantzuten saiatuko dira obran. Azaroaren 11n Elgoibarko Herriko Antzokian taularatuko dute 19:00etan, eta hurrengo egunean Mendaroko San Agustin kulturgunean, 17:00etan. Elgoibarko emanaldirako sarrerak salgai daude herrikoantzokia.eus webgunean, eta Mendaroko saioa doan izango da, baina gonbidapenak eskuratu behar dira Morroskilon.

Literatur solasaldia egingo dute Garbiñe Ubedarekin

Garbiñe Ubedaren (Ibarra, 1967) *Hobe isilik* liburua izango dute hizpide azaroko *Epeletan* literatur solasaldian, eta idazlea bera ere ekitaldian izango da. Euskal idazlea, diseinatzailea eta politikaria da Ubeda, eta kazetaritzan ibilbide luzea duen arren, 2013an kaleratu zuen *Hobe isilik*, bere estreinako nobela. 1936ko Gerran ibili eta gero, II. Mundu Gerraren amaieran Frantzia desagertutako aitona miliziano anarkistaren arrastoaren bila dabil Bakartxo. Sekretuaz, isiltzeaz, bizitza berri bat hasteaz, zaharra ahazteaz gogoeta egiten du lanak. Azaroaren 2an izango da solasaldia, 19:00etan, liburutegian.

'Desde Extremadura al euskera' hitzaldia emango du Jon Maiak Mendaron, hilaren 10ean


Jon Maiak Extremaduratik Euskal Herrira etorritako familia batek hizkuntzaren, nortasunaren eta munduan izan behar duen lekuaren inguruko prozesuaren berri emango du azaroaren 10ean Mendaron, bere bizipenetan oinarrituta. Udaletxeko pleno aretoan izango da hitzaldia, gaztelaniaz, 18:30ean hasita. Mendaroko Udalak, Arno Guraso Elkartek, Euskara Taldeak eta UEMAK antolatu dute saioa elkarlanean, erdaldunak euskarara gerturatzeko helburuarekin eta Euskaraldiaren harira [Zaintza zerbitzua emango dute jubilatuen ondoko lokalean, baina komeni da aurrez izena ematea arnogurasoelkatea@gmail.com helbidera idatzita]. Hitzaldi bukaeran, Errigorako



produktuak dastatzeko aukera ere eskainiko dute, saskiak hautatzeko bidea erraztu asmoz.

Jon Maia bertsolaria da, baina beste kultur disziplina batzuetan ere badihardu: literaturan, musikan edota dokumentalen munduan, adibidez. Orain, *Kantu bat gara* izeneko liburu-diskoan oinarritutako azken proiektuarekin dabil hara-hona.

'Inun: sormena eta euskal kontzientzia' hitzaldi musikatua, Elgoibarren



Euskaraldia programaren barruan, *Inun: sormena eta euskal kontzientzia* hitzaldi musikatua antolatu dute Elgoibarko Euskaraldia Taldeak, AEK euskaltegiak eta Udal Euskaltegiak, Elgoibarren, bereziki euskara-ikasleentzat eta Tertuliak programako kideentzat, nahiz eta bestelako herritarrek ere zabalik izango duten atea. Ekimen honekin euskara ikasteko egin duten ahalegina eskertu nahi diote erdaldun jendeari. Mikel Inuntziaga *Inun* (Zornotza, 1983) emango du hitzaldi musikatua. 2014an ekin zion musikari ibilbideari Inuntziagak eta bost disko ditu: *Berreginez* (2014), *Da nola* (2016), *Aingurak* (2018), *Nana Nana* (2020) eta *Dena zuretzat* (2022).

Azaroaren 4an (barikua) izango da hitzaldi musikatua, Kultur Etxeko Sotoan, 19:00etan hasita.


Azaroan barik abenduan hasiko da Mendaron Arnok antolatutako irakurketa kluba

Mendaroko eskolako HH5tik LH6ra arteko ikasleentzat irakurketa kluba antolatu du Arno Guraso Elkartek aurten ere, liburutegiaren laguntzarekin. Mireia Delgado ipuin kontalaria izango dute aurten ere gidari eta hilean saio bat egingo dute, adinka

banatuta. Talde txikiak izango dira, eta itxita dago izena emateko epea. Antolatzaileek, baina, oharra zabaldu dute jakinaraziz, azken orduko aldaketa bat tarteko, azaroan beharrean abenduan izango dela lehenengo saioa: abenduaren 15ean.

Jolasa, kalera!

Jolasaren astea antolatu dute aurten jostailu erakusketaren ordez, eta jolasak kalera aterata dituzte. Lekueder, Kalegoen plaza edota Urazandiko parkeak ezohiko jolasgune bilakatuta ikusi ditugu, eta umeak, pozik, kalean jolasean. Eragile desberdinek hartu dute parte antolakuntzan. Atxutxiamaika, Udal Ludoteka eta Gaztelekua, Biraka, Egur, Zubi Ondo Xake taldea eta Musika Eskola aritu dira beste beste ekintzak gidatzen, eta emaitza "positiboa" izan dela adierazi dute. "Oso pozik" agertu dira antolatzaileak, eta eskerrak eman dizkiete jolasetan parte hartu duten herritarrei. Eguraldia lagun izan dute, eta guraso eta umeak ere gustura ibili dira. Argazki gehiago: barren.eus



Xabier Loiolak irabazi du Euskal Herriko Hiru-txirlo bola joko txapelketako hirugarren jaurtialdia

Txapelketaren ekuadorrera ailegatu da Euskal Herriko 32. hiru-txirlo bola joko txapelketa. Hirugarren jaurtialdia jokatu zuten zapatuan, Aramaioko Untzilla auzoan, eta San Migel taldeko kide Xabier Loiola gailendu zen. Loiolak bederatzita txirlo bota zituen egin zituen hiru tiraldietan; denak. MX3T taldeko Fidel Madariaga mallabiarra sailkatu zen bigarren, 8 txirlo jota, eta Floreaga taldeko Santos Muñoz sailkatu zen hirugarren, 7 txirlorekin. Guztira 73 bolari lehiatu ziren Aramaion. Txapelketako laugarren jardunaldia azaroaren 5ean jokatu dute, oraingoan Bizkaiko lurretan, Ziortza-Biolibargo Iruzubietako bolatokian. Hiru jardunaldi jokatu eta txapelketa amaitzeko beste hiru jardunaldiren faltan, Mikel Urkia (MX3T) dago sailkapen nagusiko lehen postuan, 14 txirlorekin. Urkiaren taldekide Fidel Madariaga ageri da bigarren postuan, eta honek ere 14 txirlo bota ditu lehen hiru jardunaldietan. San Migel taldeko Jabier Osoro dago hirugarren postuan, 13 txirlorekin. Bikotekako sailkapenean, bigarren postuan daude Jabier Osoro eta Unai



Loiola, 23 txirlo batuta. Fidel Madariagak eta Jose Angel Ogizak osatutako bikoteak 26 txirlo bota ditu orain artean, eta horregatik daude lider. Emakumezkoen sailkapenean Asola Berri taldeko Jone Perales da liderra, 8 txirlorekin. Azkenik taldekako behin-behineko sailkapenean, MX3T dago lehen postuan (48 txirlo) eta San Migel A taldea bigarren postuan (36 txirlo).

Energia aurrezteko neurriak hartu dituzte udal kirol instalazioetan



Azken hilabeteotan energiaren prezioak izan duen gorakadaren aurrean, energia aurrezteko hainbat neurri hartu ditu Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak. Jakinarazi dutenez, hirukoiztu egin da argindarraren kostua udal kirol instalazioetan: 80.000 euro/urteko izatetik 238.000 eurotara pasatu da argindarragatik urtebetean ordaintzen dutena. Ildo beretik, ia laukoiztu egin da gasa erabiltzeagatik ordaintzen dutena: Urtean 51.800 euro ordaintzetik

176.000 euro ordaintzera. Datuon berri izan ostean, energia aurrezteko zenbait neurri aztertzen ari direla aurreratu dute Udaletik, eta batzuk indarrean jarri dituzte. Besteak beste, futbol zelaiko eta Olaizagako eta IMHko kantxetako edota igerileku zaharreko fokoen itzaltze orduak egokitu dituzte, gastua murrizte aldera. Era berean, Udal Kirol Patronatuak uraren zein argindarraren erabilera arduratsua egiteko eskatu die erabiltzaileei.

Ioseba Tamayo Utahn jokatu den Munduko triatloi txapelketan lehiatuko da bihar

Munduko triatloilari onenak batuko dira asteburu honetan St. George hirian jokatu duten 70.3 World Championship txapelketan (Utah estatua, AEB), eta horrelako proba garrantzitsuan parte hartzeko aukera izango du Ioseba Tamayo elgoibartarrak. Ironman 70.3 Cascais proban lehiatu zen, iazko urrian, Portugalen, eta laugarren postuan sailkatu zen bere adin tartekoen artean, 30 eta 34 urte artekoen mailan, eta 49. postuan sailkapen nagusian. Eraitza horri esker lortu zuen Munduko txapelketarako sailkatzea. Munduko txapelketa honetara sasoi betean iristeko "gogor" entrenatzen aritu da azken urtean, eta inguruko triatloietan ere hartu du parte. Gasteizko triatloian esaterako, laugarren postuan sailkatu zen eta zortzigarren postua eskuratu zuen Euskadiko Triatloi Txapelketako sailkapen nagusian. Espainiako txapelketa jokoan zegoen Iruñako triatloian, berriz, 30. postua eskuratu zuen. Zapatuan lasterketa ona egiteko esperantza dauka, eta ilusio handiarekin joan da ameriketarantz. "Urteak daramazkit triatloi munduan, eta kirol honetan urtetik urtera hobetzeko egin behar den ahalegina eta sakrifizioak ez dira txikiak. Hortaz, han egoteko aukera izatea saria da", dio. "Munduko txapelketa da eta ez ditut ezagutzen parte hartuko duten



lehiakide asko, beraz ez dakit zehatz-mehatz, zer mailako lehiakideak aurkituko ditudan". Igeriketa probarekin hasiko dute triatloia. 1.900 metroko ibilbidea osatu beharko dute igerian, laku batean. Ondoren, bizikleta hartu eta 90 kilometro egin beharko dituzte, 1.000 metroko desnibel positiboa duen ibilbidean. Eta, amaitzeko, maratoni erdi bat (21 kilometro) egin beharko dute saltaka, 200 metroko desnibel positiboarekin. Bero handia egingo duela iragarrita dagoela zehaztu du Jaz Eibar Triatloi Taldeko kideak. 8:15ean hasiko da lasterketa (hemen 16:15ak izango direnean) eta Facebook eta Youtubeko kanaletan emango dute zuzenean, Ironman kontuetan. Horrez gain, Ironman app-etik parte-hartzaile bakoitzaren zuzeneko sailkapena jarraitzeko aukera izango da.

Igeriketaren kultura herrian zabalduko du Igeriketa taldeak

Elgoibarko Igeriketa Taldeak batzarra egin zuen eguaztenean, musika eskolako auditoriumean. Batetik, 2022-2023 denboraldirako prestatu duten lehiaketa egutegia ezagutarazi zieten Igeriketa Eskolan diharduten haurren gurasoei, eta baita lehiaketa helburuen nondik norakoen berri eman ere. Eta, bestetik, batzarraren bigarren zatian, gazteek orain arte erakutsi duten maila eta igeriketa modua azpimarratu zuten. Horrekin lotuta, taldea sendotu eta herritarren artean igeriketaren kultura zabaltzea adostu zuten batutakoaren artean.



LANA

Eskaerak

Geriatrico laguntzailea, adinekoei edo menpekoei laguntzeko prest. Erreferentzia onak eta esperientzia handia ditut.
660 511 781

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Etxeko langile moduan edo orduka.
631 357 711

Adinekoak zein umeak zaintzeko prest nago, eta baita etxeko lanak egiteko ere. Etxeko langile moduan egoteko prest nago. Pertsona arduratsua naiz.
688 896 630

Adinekoak edo umeak zaintzeko prest nago. Titulua daukat. Esperientziaduna.
685 724 861

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
652 020 464

Garbiketa lanak egingo nituzke, orduka. Esperientziaduna naiz
632 721 342

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan egoteko prest. Esperientzia daukat.
685 382 518

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago.
642 578 943

Adinekoak edo gaixoak zaintzeko prest nago, etxeetan, baserrietan... Titulua daukat. Autoa eta gidabaimena ere bai.
602 834 107

Adinekoak zaintzeko prest nago. Etxeko langile moduan ere bai. Esperientzia daukat.
641 018 638

Elgoibarren jaio eta bizi den 49 urteko emakumea umeak zaintzeko prest. Esperientzia. Etxeko lanak ere egingo nituzke.
636 223 142

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. 5 urteko esperientzia daukat.
642 126 876

Umeak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat.
685 724 861

Eskaintzak

Zarauzko ile-apaindegi baterako ile-apaintzailea behar da.
678 659 118

Menpekotasun kognitiboa duen emakume bat zaintzeko pertsona behar da. Derrigorrezkoa titulua eta esperientzia izatea. Erreferentziak izatea baloratuko da. Deitu 17:00etatik aurrera telefono honetara:
637 258 819

ETXEBIZITZAK

Etxebizitza alokatzen dut Arregitorre 12an. 3 logela, egongela, sukaldea guztiz hornitua. Altzariekin. Igogailua, ganbara eta garajerako aukera.
669 671 680 (Josu)

 <p>Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas Euzkoako Enpleu Administrazioaren Lanarile Kontsekoa</p>  <p>ROSA Mª PINTADO</p> <p><i>Etaldeen Administrazioako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749</i></p> <p>660 969 679 rosap@telefonica.net</p>	<p>Jakin nahi nuke komunitateko lehendakariak langile bat kaleratu ahal duen, etxejabeen batzarrean horrelakorik onartu ez bada.</p> <p>Langile bat kontratatu edo kaleratzea etxejabeen batzarrean eskuduntzako gaia da. Legeak organo honi ematen dio komunitatearen interes orokorreko gaiak ezagutzeko eta erabakitzeko funtzioa, zerbitzu komun baten aldeko neurri egokienak hartzeko. Ez badago langile hori kaleratzeko akordiorik, presidentea komunitatearen ordezkari papera hartzen ari da, aurrez baimendu ez dioten ekintza bat gauzatzeko. Honelako kasu mugatuak direnean, presidentek bere izenean erantzun behar du, komunitateak ez badu behintzat ekintza horren kontrako erabakirik hartzen. Komunitatearen eguneroko gestioan presidentek erabakiak hartu ditzake eta hartu behar izaten ditu sarri etxejabeen batzarrean arte itxaron gabe, baina gero erabaki horien berri eman behar du zehatz mehatz urteko batzar nagusian, edo beste edozein batzarretan, baina presidentek ezin ditu etxejabeen batzarrean konpetentziak ordezkatu.</p> <p>GOMENDIOA: Gertaera larri edo presazkoa ez bada behintzat, hobe izaten da ohiko edo ez ohiko etxejabeen batzarra deitzea gaia landu eta erabakiak hartzeko, presidentek bere kabuz erabaki eta gero etxejabeen batzarri informazioa ematea baino.</p>  <p>AHOLKULARI KOLABORATZAILEA San Bartolome, 2</p>
---	---

28 BARIKUA

18:00 Gau Beltza. Atontze tailerra, Kalegoen plazan.

19:30 Ibilaldi girotua, Kalegoen plazatik Maalara.

19:00 Kontzertua: Bikustik. Patxi Zabaleta eta Jon Gurrutxagak osatutako bikoteak kontzertua emango du. Herriko Antzokian.

29 ZAPATUA

Hil bukaerako feria

9:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta, Kalebarren plazan.

11:00 Txosna: Elgoibarko Lagun Taldea elkarteak kudeatuko du.

12:00-14:00 Umeentzako tailerrak, Kalebarren plazan.

Eguerditik arratsaldera:

Ganadu erakusketa, Kalebarrenen.

10:00 Mobilizazioa:

Anbulatorioko larrialdi zerbitzua berreskuratzearen alde. 24/7 plataformak antolatuta, Kalegoen plazan.

18:00 Futbolin txapelketa, Kultur Kafean.

31 ASTELEHENA

Arimen gaua Mendaron

19:00 Ixabel Agirresarobe ipuin kontalaria, Trinitaten. Arno Guraso Elkarteak antolatuta.

2 EGUAZTENA

17:00 'Kanela, kalabaza eta gatxak ipuina' eta 'Coco' filma. Herriko Antzokian. Mozorrotuta joateko deia egin dute antolatzaileek.

19:00 'Epeletan' literatur solasaldia: Garbiñe Ubedaren *Hobe Isilik* liburua landuko dute eta idazlea saioan egongo da. Udal Liburutegian.

4 BARIKUA

19:00 Bideo foruma: 'Los abrazos rotos'. Loredi Salegik gidatuko du. Haizeak antolatuta, Lilan.

5 ZAPATUA

18:00 Elsie Xalbadarren ipuin kontaketa saioa, Mendaron. Udaletxeko pleno aretoan.

10 EGUENA

18:00 'Euskaraldia plazan!' Elgoibarko Euskaraldia Taldeak antolatuta.

18:30 Hitzaldia: 'Calladita no eres más bonita'. Helena Gilek emango du, Lilan.

18:30 'Desde Extremadura al euskera' hitzaldia emango du Jon Maiak. Mendaroko udaletxeko pleno aretoan.

11 BARIKUA

19:00 Antzerkia: 'Hiru kortse, azukre asko eta brandy gehiegi'. Herriko Antzokian.

Zinea

(Herriko Antzokian)



'Cinco lobitos'

29 zapatua: 19:00 / 22:15

30 domeka: 19:00

31 astelehena: 21:00

'Tadeo Jones 3: La tabla esmeralda'

30 domeka: 16:30

'En los márgenes'

4 barikua: 19:00

5 zapatua: 19:00 / 22:15

6 domeka: 19:00

7 astelehena: 21:00

'Izurde mutikoa'

6 domeka: 16:30

'Fire of love' (Ongarri)

9 eguaztena: 21:00

ORDU ALDAKETA, DOMEKAN

Asteburu honetan neguko ordutegian sartuko gara, eta ordua aldatu beharko da. Hortaz, domekan, **urriaren 30ean, 03:00etan, ordubete atzeratu** beharko da ordularia.



Botika ordutegiak: 09:00-13:00 7 16:00-20:00

GUARDIAK: Egunez: 09:00-22:00 Iluntzean: 20:00-22:00 Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

<p>28 BARIKUA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>29 ZAPATUA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>	<p>30 DOMEKA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>	<p>31 ASTELEHENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Yudego</p>
<p>1 MARTITZENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean ---</p>	<p>2 EGUAZTENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>3 EGUENA Egunez Barrenetxea Iluntzean Barrenetxea</p>	<p>4 BARIKUA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Arriola</p>
<p>5 ZAPATUA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>6 DOMEKA Egunez Garitaonandia Iluntzean Garitaonandia</p>	<p>7 ASTELEHENA Egunez Arriola Iluntzean Arriola</p>	<p>8 MARTITZENA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Garitaonandia</p>
<p>9 EGUAZTENA Egunez Yudego Iluntzean Yudego</p>	<p>10 EGUENA Egunez ■ Oruesagasti Iluntzean Arriola</p>	<p>11 BARIKUA Egunez ■ Fernandez Iluntzean Garitaonandia ■ Arriola</p>	<p>12 ZAPATUA Egunez ■ Ibañez Iluntzean Yudego</p>
<p>■ Fernandez: Herriko enparantza,4 Garagartza (Mendaro) 943 756 142</p>	<p>■ Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) 943 751 638</p>	<p>■ Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze) 943 751 384</p>	<p>Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00 Esther Mendinueta Berastegui Urkizu pasealekua, 6 (Eibar) 943 820 106</p>



Jesus Maria Aramburu Ormaetxea

2022ko urriaren 23an hil zen, 74 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

**Oskola gordina eta mamia leuna,
Madarixako intxaurren antzera
hala izan haiz, hi, Jesus.
Batzuentzat ezezagun,
gehientzat lagun,
beti leial eta ondratu.
Hagoen tokian har ezak atsedean, lagun.**

Etxeokak



Naroa
Sanchez
Perez

5 urte, Elgoibar

"Koloretako untxia"



Luka
Goicoechea
Moreda

5 urte, Elgoibar

"Leopardo bat"



Osasun gida



RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

NATUR HOUSE

Ainara Iriando Ansola

GIZA EUKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA

RPS 203/16

Toribio Etxebarria, 22
Eibar

677 551 850



fisio&más

Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea



Trenbide kalea, 15
943 740 191 / 667 953 698
www.fisio-mas.com

RPS 177/12

RPS 271/12

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

RPS 183/12

Uzuri

optika audio

Elgoibar
943 740 359

Deba
943 192 192

leku edero

horts klinikak

RPS 171/12

Elena Herrero Lobo

Alta Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar

943 530 053

federópticos
ikus

RPS 65/07

San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734



MINTXETA TABERNA

Astelehenetik ostiralera 09:00-21:00
Astearteak: itxita
Zapatuak, domekak eta jai egunak: 09:00-19:00

GOSARIAK

PINTXO

EGUNEKO PLATERRA

PLATER KONBINATUAK

Erreserbetarako:



943 747 447

**ASTEARTEETAN ITXITA
ATSEDEN EGUNA DUGULAKO**



Lagunak Textil Hogarren, aurren,
berogailuan aurrezten lagunduko dizuten oherako arropa aukera zabala.
Zatoz eta bisita gaitzazu!

- ❖ **%100** kotoia duten franelazko edo koralinazko izarak.
- ❖ **79€tik** aurrera lumaz betetako nordikoak.
- ❖ Sherpa edredoiak, pisu gutxikoak eta bero handia ematen dutenak.

San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com



Jaso nahiko al zenituzke
ELGOIBARko
eta **MENDAROKO**
berriak zure e-postan?

Harpidetza nola egin
behar duzun jakiteko,
sartu barren.eus-en eta
egin klik 'Nor Garen' atalean.
Bertan topatuko dituzu
azalpen guztiak.



GALDERA ETA ERANTZUN OHIKOENAK

“Herritarrek berotze-sistemen inguruan galdetzen digute nagusiki”

Herritarrak gehien kezkatzen dituzten gaietaz buruz egin digute berba Energia Bulegoak.

Nola hasi zineten zerbitzua ematen?

Debegesak aspaldi eskaintzen du Etxebizitzak Birgaitzeko Zerbitzua, Eusko Jaurlaritzako birgaitzeko dirulaguntzak bideratuz. Azkenaldian energiari buruzko galderak egiten zizkiguten erabiltzaileek eta, erantzun espezializatu bat behar zutela ikusita, Energia Bulegoa jarri genuen martxan. Gainera, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, energiaren inguruko sentsibilizazio-kanpainak ere egiten ditugu.

Nortzuk dira zerbitzuaren ohiko erabiltzaileak?

Enpresek oso era konkretuan erabiltzen dute zerbitzua, baina erabiltzaile nagusiak herritarrak, komunitateetako presidentek eta komunitateetako kudeatzaileak (gestoriak) dira.

Birgaitzeari dagokionez, zein da gehien jasotzen duzuen kontsulta?

Azkenaldian energiaren gaia pil-pilean dagoenez, etxebizitzan isolamenduari lotutako kontsultak jasotzen ditugu batez ere. Isolamenduari buruz eginen dugunean, leihoei, fatxadei eta teilatuari buruz ari gara, besteak beste. Hau da, nola lortu gure etxebizitzek efizientzia energetiko handiagoa edukitzea.

Komunitateek zeren inguruan galdetu ohi dute?

Komunitateetako teilatuetan plaka fotovoltaikoak ipintzeari buruz. Hau da, zenbat plaka ipini dezaketen, zein potentzia instalatu dezaketen, gutxi gorabeherako inbertsioa zenbatekoa izango den, arautegia, jarraitu beharreko prozedurak, dirulaguntzak...

Herritarrek zer galdetzen dute energia berriztagarriari buruz?

Berotze-sistemen inguruan galdetzen digute nagusiki. Gasaren eta elektrizitatearen egoera



Energia Bulegoan gero eta kontsulta gehiago jasotzen dituzte eguzki-plaka fotovoltaikoen instalakuntzaren inguruan.

ikusita, biomasaren eta geotermiaren inguruko galderak egiten dizkigute etxea berotzeko gaiaren inguruan.

Faktura optimizatzeko zerbitzua eskaintzen duzue. Nola?

Prezioen gorakada ikusita, faktura elektrikoak optimizatzeko aholkuak ematen ditugu. Adibidez, familia batzuentzat tarifa bereziak daude.

Aipatutako gain, zein beste zerbitzu eskaintzen duzue?

Gure helburua da bere egoera energetikoaren inguruan erabakia hartu nahi duen edonork gida bat edukitzea, norberak bere diagnostikoa modu errazean egiteko. Horretarako, Debabarreneko hiru etxebizitza topatu nahi ditugu monitorizazio bat egiteko, eta horrela gida batzuk sortuko ditugu norberak bere kasuaren azterketa errazago egin dezan.